



# “Erakide proiektua erantzunkidetasun soziala neurtu eta lantzeko tresna bat da”

**Farapi Koop.** kooperatibak gizarte arloko hainbat gairi begirada berri bat ematen die berdintasuna eta partaidetza bezalako gaiak jorratuz, errealitate ezberdinak hobetarako eraldatzeko ideiarekin. **Nerea Elias Mujika** da bere bozeramailea

## Zer da Farapi Koop.?

Duela hamalau urte hasi ginen lanean, antropologia sozialetik zetozen bost bazkidek sortu zuten, pentsatu zuten antropologiak gizarte mailan ere asko eman zezakeela eta lanean jarri ziren. Egun, 11 pertsonen osatutako lan taldea daukagu, bulego bat daukagu hemen, Donostian, eta beste bat Kanariasen, bertan bi langile daude. Kooperatiba bat gara, ikusten dugulako gure balioak eta gure egiteko modua askoz hobeto ordezkatzen dituela formula honek.

## Zer egiten duzue?

Guk uste dugu berezi egiten gaituena gure lan egiteko modua dela. Antropologia sozialetik etortzeak eman digu gizartearen eta pertsonen portaerak irakurtzeko eta ulertzeko begirada berezi bat, baita horiek ezagutzeko, ikertzeko eta jasotzeko begirada ere. Gizarteko erronka ezberdinen inguruko ikerketa da egiten duguna, baina ez soilik ikertzeagatik edo ezagutzeagatik, baizik eta egoera horiek aldatzeagatik. Ez dugu ikertzen txosten bat egiteko edo ikertutakoa apal batean uzteko, transformazio bokazio bat dauka egiten dugunak, gauzak aldatu nahi ditugu.

## Pertsona edo enpresetan asko zentratzen zarete, ezta?

Beti esaten dugu jostunak garela, neurrira lan egiten dugulako. Erakunde eta enpresentzako lan egiten dugu. Pertsonekin lan egiten dugu eta gure lanak hori kontutan hartu behar du, horrek egiten du prozesu bakoitza ezberdina eta bakarra izatea.

## Ze balore ditu Farapik?

Esan dugun moduan, kooperatiba bat gara

## ERAKIDE BARRUAN DAUDEN ENPRESAK

- > BST rods
- > Illargui
- > Arrola
- > Talleres Mendizabal
- > Antza
- > Argia
- > Talleres Mitxelena
- > Ta puntu
- > Bai Euskarari
- > Iametza
- > Goierriko Hedabideak S.L.
- > Ederfil - Becker Coop.
- > Olatukoop Sarea

eta gure jarduna ekonomia sozial eta eraldatzailearen baitan kokatzen dugu. Ulertzen dugu enpresek gauden tokiarekin eta gizartearekin ardura bat dugula. Gure lan egiteko moduetan ere saiatzen gara langileen lan baldintza duinak bermatzen, parte hartzea eta gardentasuna sustatzen. Diru kudeaketa arduratsu bat egiten ere saiatzen gara. Arlo askoren inguruan lan egiten dugu, berdintasunaren edo partaidetzaren alde edo produktuen eta zerbitzuen diseinuan, adibidez. Bestalde, ikusgai egin nahi ditugu ekonomia beste modu batetara egiten duten enpresak eta balioan jarri.

## Hortik sortu zen Erakide proiektua. Zer da zehazki?

Erantzunkidetasun soziala neurtzeko

tresna bat da. Helburua da enprekin lan egitea, bere bidelagunak izatea eta enpresa bakoitzak barrura begira gogoeta bat egitea, jakiteko ze puntutaraino egiten duen bere jarduna modu arduratsu eta erantzunkide batean. Galdetegi bat da eta langile guztiak errepresentatuta daude. Garbitzaileetatik hasita gerenteetaraino denak hartzen ditugu kontuan, hori da jarri genuen baldintza bat. Prozesu kolektiboak egiten ditugu, taldetxo bat osatzen da, anitza, eta taldean egiten dira gogoeta eta aurrera begirakoak. Behin tresna erabiltuta enpresa guztiak saiatu dira ondorioei erantzun bat ematen, gauzak hobetzen.

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan duzue, ezta?

Bai, oinarrizkoa izan da, proiektu honetan sinistu eta ekonomikoki babestu du. Bere laguntzarik gabe ez litzateke aurrera aterako. Proiektuaren hasieran, bi garapen agentziarekin ere hasi ginen lanean, eta beraien papera ere funtsezkoa izan da. Bi agentzia horiek Urola Garaiko Uggasa eta Beterri Buruntza Udalak dira. Hasieran ideia abstraktu bat aurkeztu genien eta hala eta guztiz ere buru-belarri sartu ziren. Zalantzarik gabe, proiektuaren arrakastaren zati bat gure lanean dago, baina baita garapen agentzietan, Foru Aldundian eta, noski, hasieran probatu duten enpresetan ere.

## Erakide proiektuaren etorkizunari erreparatuz, zein aurrerapauso berri emango dituzue?

Alde batetik, Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat sortu du. Edukiak landuta daude eta 10 enpresa baino gehiagotan testeatu dira; eta nik uste epe laburrean egongo dela eskuragarri Gipuzkoako

Foru Aldundiaren webgunean. Hainbat tresna ditu enpresei zerbitzua emateko eta horien artean Erakide eskainiko du. Honen helburua da geroz eta enpresa gehiagok tresna aplikatzea eta horrela ere beraien informazio gehiago edukitzea bertako enpresek erantzunkidetasun sozialaren arloan zer behar dituzten jakiteko.

Bestalde, urte honetan burutuko dugun beste ekintza bat gu bezalako aholkularitzei tresna erakustea da. Kasu honetan, guk sortu eta aplikatu dugu tresna, baina ez da gurea, gipuzkoarrona da, orduan interesatuta dauden aholkulariek beraien enpresetan probatu eta gero, beste enpresei eskaintzeko aukera izango dute.

Erakide proiektua gutxinaka handituz doa eta hori albiste oso ona da.



## ➕ INFO

**Helbidea:** Mundaiz bidea 10, 23. bulegoa (Donostia)

**Telefonoa:** 943 00 35 85

**Webgunea:** [www.farapi.com](http://www.farapi.com)

**Emaila:** [info@farapi.com](mailto:info@farapi.com)